

EUSKARAZKO LIZENZIATURA IKASKETAK FRANTZIAN

Txomin Peillen

LEHEN KONDAIRA APUR BAT

Duela hogeit hamar urte René Lafon-en ondotik Jean Haritschelhar Bordele III ko katedratikoa bilakatu zenean, euskara bigarren *hizkuntza* izatera igo zuen, hizkuntzako hiru maila, literaturazko bi sortuz. Geroxeago Eugène Goyhenetche-k Pauen, berdinean egin zuen, irakasketa gutxiagorekin. Haritschelharren bigarren urratsa eta xedea euskarazko lizenziatura baten lortzea izan zen, euskara lehen mailaren mailan sartzeko egiten ziren ahaleginen dinamikaren; bi bide hartu zituen, bat itsu bilakatu zena gobernu aldaketa batekin eta euskarari legetasuna eman behar ziona, frantses agintariarekin lauzpabost urte eztabaidan iragan ondoren, bigarrena unibertsitatean lizenziaren eskaera, euskara *lehen hizkuntza* izan zedin, ezen euskal ikasketek teiltatua zeukaten, alegia doktoraduta, baina lizenziaturarik, hormarik ez.

Lizenziaren ezezkia ikusita, Julien Ajuriaguerra, Piarres Xarriton, Piarres Lafitte, Eugène Goyhenetche Claude Harlouchet, Jean Haritschelhar, Maite Lafourcaderekin A.C.I.E.B. sortu zen, eta 1979 an Baionako fakultate lekuan, Institut d'Etudes Basques delakoa sortu zen. Institut hortarik, berrehun ikasle igaro da, eta lortu dutenek *unibertsitate diploma* bat eduki dute lizenziaren lehenbiziko bi urteren baliokidetzaren duena. "Ez da txuria baina gabea da beltza" eta urte haietan maisu izateko mailan zeuden, baita orduko elebidun sistema berrian lan egiteko.

Denborarekin maisu ala lizeo erakasle lizenziatura diploma berdina eskatu da, eta hamar urteren eztabaida ta maketagingintza igaro ondoren, *lizenziatura* eman ziguten Haritschelhar joan eta berealaxe. 1989. an Halaz ere Bordeleko ta Pauko bigarren hizkuntza ta Baiona lehen hizkuntza erakasketez kanpo, frantses sisteman, ezin da beste ikasketetarako, euskararik edo frantses hizkuntza ez den bat erabili.

EUSKARA BIGARREN HIZKUNTZA

Ondean ikusiko diren unibertsitateetan euskara, bigarren hizkuntza moduan, edozein Letra eta Giza jakintza lizenziatu-

ratan % 20 eraino izatera iritxi daiteke, hautuzko (option) gisa hartuz, eta hori, lizenziaturaren lehenbiziko bi urteetan.

1. Hasiberrientzat (2-3 ordu astero) Unibertsitate horietan:
Bordele III, Parise VIII, Pau ta Toulouse III
Montpellier-en ere zerbait egiten da.
2. Hizkuntza maila ertainekoan (2 ordu astero)
Bordele III, Parise VIII, Pau ta Toulouse III.,
3. Literatura (2 ordu astero)
Bordele III (4 ordu), Parise VIII, Pau.
Bordelekoaz balia liteke lizenzia hatean.

EUSKARA LEHEN HIZKUNTZA

Euskal filologiaren antzekoa da, laur urteez egin daitekena. Laur urteren buruan ikasleek, tesina bat igaro ondoren "*maîtrise*" izeneko diploma daukate eta orduan hegoaldeko lizenziaturaren baliokidetzaren.

Gure diplomak bi baldintza ditu, lehenik "national" balioa izateko lehen bi urteetan era ikaskuntza orokor bat eman behar du, beste ikasketetara irekia - metodologia irakaspenean behintzat - ikasleek geroago beste asmorik balukete, eta beste ikasketetatik datozenen atosteko gai izan gaitzen; bigarrenik ez dugu euskal lizenziatura "kanpotar hizkuntza" batena bezala antolatuta, euskara gure ama hizkuntza baita eta gure erakasleek lehen ta bigarren mailan, ez dutelako euskara irakatsiko gai bezala soilik, baina askotan euskaraz erakatsiko beste gai batzu (historia, geografia eta, holakoak...).

Gaiak. I. Euskararen erakasketan Astean, ordubete erakaspenean ta beste ordubete ariketa daukate gramatikaren urte guzietan; ordu bat eterdi itzulpen, eta ordubate et'ardi euskal literatura, (lehen urtean oraingo literatura, bigarren urtean aintzinakoa) Denetara bost ordu.

2. Gizarte Jakintzetan. Astean bi ordut'ardi (lehen urtean Euskal herriko geografia ta soziologia, bigarren urtean etnologia ta kondaira,) hirugarren urtean denak, astean sei orduz.

3. Frantsesa. Lehen bi urteetan bakarrik derrigorrezkoa. Astean bi orduterdi (lehen urtean linguistika orokorra, eta literatura ta frantses idatzia, bigarren urtean oraingo frantsesa, literatura ta ahozko hizkuntza). Aurretikan garrantzi hori eman zitzaion guk gertutu behar ditugun erakasleak elebidun izan behar baitute, ez hizkuntz erakasle bakarrik; hori baliatu zaigu, geroztik eta oraintxe egiten diren birmoldaketei aurre eginik, ez baitugu ezer aldatu beharrik.

4. Kanpotar hizkuntzen erakaskuntza. Kanpotar hizkuntza astean bi orduterdi erakasten dira eta erdi bana egin behar dute, latin eta okzitanierarekin. Kanpotar hizkuntza ikasiena gaztelania da noski, baina ingelera egiten dute batzuk.

5. Hirugarren ta laugarren urteetan frantsesa ta hizkuntza, hizkuntzen didaktika haukerazkoak izan daitezke eta astean bi orduz baizik.

6. Lehen ta bigarren urtean bi irakaspen bereizi badira, bata euskaraz "Ideologiak ta euskal literatura", bestea "Foruz". (fr.)

Gaiak ta euskararen lekua. Frantsesak lehen ta bigarren urtean leku zabala baldin badu, ez euskarak haina, ordea, laur urteetan % 15 ra iristen da, berdin beste kanpotar hizkuntza (gehienetan gaztelania) % 15; beste % 15 gelditzen da gizarte jakintzentzat eta % 55 euskararentzat eta bere literaturarentzat, baita etnologia, historia, latina, euskaraz direnak. konda. Bereizitasun gisa, euskara kutsatu ta kurutzatu dituzten bi hizkuntza erakasten dira Baionan, latina ta gaskoina.

Euskaldun erakasleen arazoa. Erakasle euskaldunik ezaz, (astean bi ordu egiteko nor, Baionakoa ezpada eta nor behar diren tituluekin?) geografia, ta soziologia erdaraz da. Soziologoetarik batek euskara badaki, baina ez du "trebetasunik ezaz" bere klaserik egin nahi euskaraz.

Ikasleak. Gure ikasle gehienak letra batxilerdunak dira, baina ikasleetan % 30 bat gutti gorabehera "bachelier scientifique et technique" da, badira batzu batxileratetik goitiko teknologia diplomadunak ere. Nola nahi ere, COU modurik gabe, batxileratetik zuzenean ikasleak hartu behar ditugu. Gehienek, ordea, beren etxean ikasitakoa ta beren borondatez ikasitakoaz kanpo, gurekin daukate, maiz, euskararen lehenbiziko erakaspenera iparraldekoek. Halere zintzoki dabilta ikasten eta emaitza aski onak izaten ditugu.

Baionako ikasleen kopurua, azken bi urteetan ehunen inguruan egoten da. Iparraldean hezkuntza elebidunak eskatzen dituenekin ez da batere nahikoa, gure ikasle guziek ez baitute, irakaskuntzaren bidea hartzen. Bestalde ikaslegoa hori bitxia da, ezen erdiak nonbait, langileak izanki ez ditugun askotan ikusten. Liburutegietan, ospitaletan, komertzio etxeetan, fabriketan, irratietan, jadanik lan egiten dutenak bazter utzita, andana bat dabil erakaskuntzan.

Ikasleen artean, hegoaldeko ikasleak % 1 etik % 10 tara pasatu dira, batzu hemen bizi, batzu gauero Nafarroara edota Gipuzkoara erretiratzeko direnak. Egia da, oraintxe, nahiko baldintza onak ditugula, klaseetan ez baitira ikasleak metatzen. Aurten nafartar, bizkaitar, gipuzkoar multzo polita daukagu, gure ikasleei eta ikasle giroari haize berri bat ekarzen dutelarik eta haiek beste aize bat arnas egiten.

Elebiduntasunaren hedakuntza hain da berotu non, batzutan, lehen urteetik eta batere gaitasunik, formakuntzarik gabe lanean jartzen baitituzte, batik bat Erakaskuntza Publikoan; ez da ikastolekin zein gehiagokan dabiltzalako, baina jendeen eskaera bizia, dagoelako. Eskaera hori euskaldun ez direnek eta orozgain unibertsitatean, batzuk, ezin dute ulertu, ez onartu.

EUSKARA TA BIGARREN MAILAKO ERAKASLEEN FORMAKUNTZA

Lehen mailan, "Ikastolako" andereño ta maisuek Donostian sei hilabetetako trebakuntza ta pedagogia erakaskuntza jarraitzen dute, gehienetan lizenziatura lortu ondoren eta aintzina bigarren urteko DEUG diplomatxoarekin. Batzuk hegoaldean ikasketa luzeagoak egiten dituzte. "Pribatuko" maisu ta andereñoek, Toulouse-n pedagogia ikasketak egiten dituzte eta euskarari buruz ta erakaskuntza elebidunari buruz zertxobait ikasten, "Publikoko" erakasle elebidunek ez dute lehen mailan, inolako pedagogia bereizirik eduki, batzu Eskola Normaletik frantses ikasketekin atera dira, besteak ez, eta denek ez dute inolako erakaskuntza elebidunari buruzko, ezer ikasi.

Bigarren mailan Publikoan oposizioak badira eta Magisteritza klaseak, pedagogia euskara, euskal literatura, historia, geografia gai bezala ikasten dute; euskarazko ta frantseseko azterketak dituzte, ahoz ta idatziz, gero teoria horiek ondo ateratu ondoren, uretebete, ikastaldi / irakastaldi bat egiten dute ta azken batean ikasgaia tribunal baten aurrean aurkezten. Azkenik ematen zaie CA.P.E.S delakoa Certificat d'Aptitude au Professorat de l'Enseignement Secondaire eta "professeur certifié" titulua. Aurten euskal profesoratu hortara hamalaur aurkeztu dira, laur lekuentzat.

Orain arte oposizio honek ez du balio pribaturako ez ikastolarako. Halere antzeko diploma egin dute "certifié" edo "agrégé" izateko pribatuan. Euskararentzat oraindik ez da eman, ezen elebidun sisteman pribatua eta elizaren eskolak izan direlako atzerakoienak, gibeloenak, uzkurrenak, alde batetik mailahandiko erakasleak nahi dituztelako eta besteetik egituraren barnetik frenoak daudelako.

Ikastolan, behintzat, bigarren mailan ez da diploma gabedunik eta beren borondatez, doktoradunak ere badira, bigarren mailan erakasten dutenak, eta naski, Bordeleko diploma zaharra, eta gure lizenziatura berria dutenak ez dira falta. Baina aspaldian elebidun sisteman sartu direnentzat eta bereiziki Euskal Herri barnekoentzat, Baionara ikastera etortzeko herabetasuna badago, etxeko, haurrak direla ta, ikastolakoak, "urruntasuna" dela kausa: unibertsitate prestakuntzarik gabe baliteke egun batean, ezin jarraituz edo Hezkuntza Ministeritzak beren hilabete sariak ordaindu nahi ez, kanpoan geratzea, ezen begi bekaitzez ikusten dituzten erdaldun sindikato "aurrerakoiak" zain daude noiz eroriko diren, zenbat nahi lan ona eginik eduki, diplomarik ezaz.

Résumé: Les Etudes Universitaires Basques en France

Ces études ont connu un développement lent mais régulier depuis 1967. La langue basque est devenue seconde langue à l'Université de Bordeaux III, puis quatre ans après à l'Université de Pau. Toutefois la demande d'études basques provenait d'étudiants et d'enseignants qui souhaitaient faire leurs études à Bayonne; au bout de dix ans de discussions des professeurs de Bordeaux III et Pau et de hauts fonctionnaires favorables au basque, ils ont obtenu à partir de 1981 un diplôme d'Université de Bordeaux III, puis ce diplôme et le doctorat déjà existant ont été délivrés dans les mêmes conditions du double sceau. Le Diplôme Universitaire d'Etudes Basques permet aux enseignants bilingues des années 80 d'avoir une formation théorique condensable.

Enfin entre 1989 et 1991 nous avons obtenu un cursus complet de licence et maîtrise d'études basques de première langue en quatre ans, correspondant globalement à la

Filologia Vasca. Ce diplôme est prévu notamment, mais pas uniquement, pour former des enseignants bilingues de l'école primaire, du collège et du lycée.

Plusieurs matières, en dehors de la langue, sont enseignées en basque (ethnologie, histoire, latin et idéologies). La part du français contemporain est assez importante et orientée vers les pratiques d'enseignement bilingue. Malgré l'handicap d'origine de nos étudiants qui souvent n'ont reçu que peu ou pas d'enseignement dans leur langue maternelle au cours de leurs études secondaires, les résultats sont pour l'instant satisfaisants.

Une centaine d'étudiants suivent ces études à Bayonne. Beaucoup sont déjà pris dans l'enseignement bilingue ou la demande d'enseignement est supérieure à ce que nous pouvons former.

Hormis la formation que reçoivent ceux de l'ikastola à l'Ecole Normale de Donostia, les autres maîtres des enseignements privés et publics n'ont aucune préparation à l'enseignement bilingue. Depuis cette année les professeurs de l'enseignement secondaire sont formés dans le cadre des Instituts de Formation des Maîtres avec des enseignements de basque et un diplôme de CAPES (Certificat d'Aptitude à l'Enseignement Secondaire).

Pour assurer cet enseignement de Bayonne, ceux de Bordeaux et de Pau II n'y a que deux professeurs et un Maître de Conférences; les autres cours sont assurés par des enseignants de Lycée hautement qualifiés (docteurs et agrégés) mais il manque des postes à tous les niveaux des enseignements basques de l'école maternelle au Supérieur. De même certains enseignements sont assurés en français faute de professeurs qualifiés sachant le basque.